


Justiziaren

aldeko

MANIFESTUA



B adira hogeita hamasei urte, herritarrok, justizia ezarri nahian, orden ekonomiko eta sozial batean oinarrituriko bizikidetzan demokratiko bat bermatuko ligukeen konstituzio baten alde egin genuela. Halaxe aldarrikatzen zuten konstituzio hartako lehen hitzek, eta horrelaxe irakur daiteke haren hitzaurrean gaur egun ere..

Bada, herritarrok arau haren alde egin genuenetik hogeita hamasei urte igaro direla, desio horiek guztiak zapuzteko zorian aurkitzen dira, hain zuzen ere, herrialde hau gaur egun pairatzen dugun porrot ekonomiko eta, batez ere moralera eraman duten bidegabeko lege eta politika zitalak direla medio.

Gure Konstituzioak ezarri nahi izan zuen justizia (epaile independenteek legearen aurrean berdinak diren herritarrei emanikoa), gaur, hilzorian aurkitzen da disuazio kantitate ekonomikoen ordainketak (tasak) direla eta, justiziaren beraren eskuragarritasuna baldintzatzen duten edo gure organu judizialen independentzia ahultzen duten lege zein lege proiektuen ondorioz.

Justiziarik eskaintutako arreta ezak, eta berarekin irizpide interesatu eta alderdikoen bidez antolatutako saiakerak, justizia hobetzera apenas balibaidetik ez zuzendu izana ekarri du; ondorioz, gaur egun, konstituzio haren alde egitera eramanez gintuen lehen arrazoiak zapuzturik aurkitzen da ia-ia.

Ez gaitzatela engainatu: Justiziaren porrotak ahalbidetu du ustelkeria erakunde publikoetan egokitzea, eta ustelkeria publiko hau izan da gaur jasaten dugun porrot ekonomiko eta morala ekarri duena.

Ez al da egia egungo krisi hau ez zela hain larria izango gehiegikeria eta finantza, higiezin edota hirigintzako ustelkeriak kontrolatzera gutxiengo baliabide batzuk zuzendu izan balira? Ez al da egia, justizia

arin eta eraginkor bat existituko balitz, ez litzatekela egongo klase politiko eta nazio erakunde gorenek, ustelkeria prozesu amaigabeetan, eskaini dizkiguten ikuskizun lotsagarririk? Ez al da egia, halaber, herritarrek eskubideak defendatzen eta babesten dituen justizia administraziorik gabe, eskubide guzti horiek ezerezean geratzen direla?

Jakin dezazuela denok eta present izan hurrengoa: Justiziarik ez bada, berdin dio eskubideak aldarrikatzea, ez baita horiek galdatuko duen inor egongo. Justiziak ez badu behar bezala funtzionatzen, aldarrikatzen diren eskubide edo legeek ez dute eraginkortasunik izango. Justiziarako sarbidea prezio batek markatzen badu, eskubideen egikaritzea ere preziopekoa izango da.

Ez dago bizikidetza posiblerik justiziarik gabe, hura gabe estatu guztiak estatu akatsdunak dira; hortaz, gogora dezagun zeintzuk izan ziren elkarrekin bizitzeko eta konstituzio baten alde egitera bultzatu gintuzten arrazoia eta helburua. Bizikidetza birsortu eta berreraikitze momentua heldu da, eta horretarako, printzipioetatik hastea baino beste biderik ez dago.

Horregatik, milaka herritar letra bakar batenpean elkartu gara: gure justizia eskakizuna irudikatzen duen #T bat, gobernuak ezarritako tasa judicial iraingarriekiko errefusaren irudia den #T bat,

justiziaren berdintasunezko balantza bati dei egiten dion #T bat; azken finean, justizia, bizikidetasuna, guztiona (eta ez bakar batzuen) den zerbait dela gogorarazten digun #T bat.

Ez da kolore politikorik #Taren itzalean, izan ere, justizia beharrezkoa, gutxiengo demokratiko bat izan nahi duen, egungo edo etorkizuneko, alderdi politiko, estatu zein edozein komunitatek, amankomunean duten zerbait baita.

Bizikidetasun demokratiko hau ezinezkoa litzateke justiziarik gabe eta hortik jaiotzen da berau berreskuratzeko premiazko beharrezkoa; izan ere, jada hasitako suntzipenari ekinez gero, bizikidetasun demokratiko eta aserako itzaropen oro desagertu egingo bait litzateke.

#Tn Justiziaren alde borrokatuko dugu eskura ditugun arma gutxi baina erabakiorrak erabiliz: gure ahotsa eta gure botoa. Tasa judizialen lege iraingarriaren indargabetzea galdatuko dugu; justizia administratza berau funtzionatzeko behar besteko baliabideak zuzentzea galdatuko dugu, Doako justizia duin bat galdatuko dugu, eta justiziaren independentzia arriskuan jartzen duten lege eta lege proiektuak erreformatzera behartuko dugu Gobernuak. Azken finean, guda honetan borrokatu eta irabazi egingo dugu, justizia edozein eztabaida politikoren

aurretik doa eta; justiziarik Gabe bizikidetzarik ez dagoelako.

Horregatik, bozkatzeko orduan, gogoratu, alderdi politiko bat edo besteren alde egiteak baino garrantzi handiagoa izango duela tasa judizialen lege zitalari babesa ematen ez dion alderdiari botoa emateak, adibidez. Izan ere, lehenik eta behin ustelkeri eza behar dugu, bizi ditugun bezalako porrot ekonomiko eta moral gehiagorik ez jazotzeko; behar duguna guztiontzako eta guztiona den justizia delako.

Bai, horrelaxe izan behar duelako: guztiona, guztiontza#T.